

OHIZKO OSOKO BILKURA

2016.01.26

Tolosako Udaletxean, 2016ko urtarrilaren 26an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 26 de enero de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala

Ez bertaratutako zinegotzia:
Jose Ignacio Asensio Bazterra
Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behneko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo aktak onartzea:

2015eko azaroaren 24ko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2015eko abenduaren 14ko Aparteko Osoko bilkurakoa.

Orden del día

1. Aprobación de las siguientes actas:

Sesión ordinaria del 24 de noviembre de 2015.
Sesión extraordinaria del 14 de diciembre de 2015.

- | | |
|---|--|
| <p>2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:</p> <p>2015eko abenduaren 1etik 30era (2015/1.933-2015/2.123).</p> <p>3. Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren aldaketa puntuala. Hasierako onarpena: "28. Albistur" Hirigintza esparrua</p> <p>4. UEMAko ordezkariak izendatzea</p> <p>5. Galderak eta eskaerak.</p> | <p>2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:</p> <p>Del 1 al 30 de diciembre de 2015 (2015/1.933-2015/2.123).</p> <p>3. Aprobación inicial de la modificación puntual del Plan de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico "28. Albistur".</p> <p>4. Nombramiento de representantes de UEMA.</p> <p>5. Ruegos y preguntas.</p> |
|---|--|

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1. Ondorengo aktak onartzea:

2015eko azaroaren 24ko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2015eko abenduaren 14ko Aparteko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de las siguientes actas:

Sesión ordinaria del 24 de noviembre de 2015.
Sesión extraordinaria del 14 de diciembre de 2015.

2015eko azaroaren 24ko Osoko plenoko aktan, 7. gaieko partehartzea, Onintza Lasa Arteaga EHBILDUko zinegotziak eskatutako zuzenketaren egin ondoren, horrela jasota geratzen da:

... Onintza Lasa Arteaga (EHBILDU): *"Gure aldetik baiezko bozka emango diogu. Irakurrita adierazpena, dena esana dago, baina bai aipatu nahiko nituzke hainbat gauza eta uste dut mozio honi aberastasuna ere ematen diotela: "**Batzordean era ezberdinetako emakumeak daude eta hasiera batetik testua baldin bazegoen ere guztien ekarpenen islada ondo jasotzen duela mozio honek.** Aipatu dezakegu arazo estrukturala, gure baitan azpimarratzekoa, dagoen mikromatxismoaren gaia. Askotan harritzen gara botere gabeko gertaerak ematen direnean, baina guzti horrek badu aurretik bide bat, eta, agian normalizazioaren arrisku horretan, gero gertatzen dira gertatzen direnak, eta usten dugu arreta, bereziki ere, hor jarri behar dela. Ezin da ezer besterik gabe pasa, bestela normalizatzen ari baikara hainbat jardun. Eta horrek eskatzen du ardura. Hemen eskatzen da ardura instituzioei. Gauza askotan instituzioei egozten dizkiogu ardurak, baina arlo batzutan, ardura pertsonalak ere hartu behar ditugu. Ezin dugu beste leku batetara begiratu. Agian, normala, inork arazoetan ez du nahi sartu, baina hor ezin dugu huts egin. Hemen, baita ere enplazamendua egiten zaio Hezkuntzari, nola ez, gazteetan datuak ere ez direlako askoz hobek. Gogoeta bat egin behar dugu, baita Justizia sailari ere. Eta besterik gabe, deialdia egiten dugu jende guztia gertura dadin antolatu diren ekitaldietara. Egunerokotasunaz aparte horrelako ekitaldietan jendearen partehartzea inportantea delako."*

Bestalde, 2015eko abenduaren 14ko Aparteko Osoko bilkurakoa aho batez **onartu** da.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2015eko abenduaren 1etik 30era (2015/1.933-2015/2.123).

Alkatetzak 2015eko abenduaren 1etik 30era bitartean (2015/1.933-2015/2.123) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

3. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía: Del 1 al 30 de diciembre de 2015 (2015/1.933-2015/2.123).

3. Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren aldaketa puntuala. Hasierako onarpena: "28. Albistur" Hirigintza esparrua.

3. Aprobación inicial de la modificación puntual del Plan de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico "28. Albistur".

... Alkatea: "Pasaban enpresaren hazkundera ahalbideratzeko ordenazioko plan orokorrean aldaketa hau burutu behar da; azken finean, egoera erregularizatua izateko. Hazkundera honen aurreikuspenean ahalbideratzen da, alde batetik, jarduera gaur egungo kokapenean bertan jarraitzea eta, bestetik, merkatuen eskakizunei erantzutea. Hirigintza batzordean aztertuta dago eta aurreko legealdietatik kudeatutako gaia da.

2015eko maiatzaren 8an, Albiztur eta Tolosa udalerrri arteko mugaketaren behin betiko akta sinatu zen. Horren ondorioz, Pasaban enpresaren lursail osoa dago Tolosa udalerriko mugen barruan.

Indarrean dagoen Plan Orokorraren arabera, "28 Albiztur" hirigintza – esparruaren eraikigarritasuna da gaur egun bertan dauden eraikinaren formaren (lerrokataduraren, altueraren eta solairu kopuruaren) emaitzazkoa. Eraikuntza horiek finkatu egiten dira.

Pasaban, S.A., enpresak paper-industriarako makineria osagarria fabrikatzen du, eta hasi zirenetik, XX. Mendearen hasieran, bere jarduera Tolosa udalerriarekin lotuta egon da. Betidanik, bere hazkunde-apustua izan da berrikuntza eta produktu berrien garapena. Aurreikusitako hazkundera dela eta, eraikina handitzea aurreikusten da: alde batetik, jarduerak gaur egungo kokapenean jarraitzeko, eta, bestetik, merkatuaren eskakizunetara bizkor egokitzeko.

El 8 de mayo de 2015, se firmó el acta definitiva de delimitación entre los municipios de Albiztur y Tolosa, en la cual se refleja que la parcela completa de la empresa Pasaban se sitúa dentro los límites del municipio de Tolosa.

En virtud del Plan General vigente, la edificabilidad del ámbito urbanístico "28 Albiztur" es la resultante de la forma (alineación, altura y número de plantas) de las edificaciones que hoy en día se sitúan en el mismo, que se consolidan.

La empresa Pasaban, S.A., fabrica maquinaria complementaria para la industria papelera, y desde sus inicios su actividad ha estado ligada al municipio de Tolosa. Su apuesta de crecimiento siempre se ha basado en la innovación y el desarrollo de nuevos productos. Ante la perspectiva de su futuro crecimiento, la empresa contempla ampliar la planta: por una parte, para que la actividad continúe en su actual emplazamiento, y, por otro, para poder adaptarse rápidamente a las exigencias del mercado.

Beraz, aldaketa puntualaren helburua da eraikigarritasuna handitzea. Hain zuzen ere, 5.668 m² (gehienez) handitzea aurreikusten da. Horretarako, handituko dira oinplano-okupazioa eta altuera maximoa oin plano-okupazioaren %25.

Aldaketaren arabera, lurzorua, gaur egun finkatua dena, hiri-lurzoru finkatugabea izatera pasako litzateke, eraikigarritasuna gehitzeagatik. Hori dela eta, zuzkidura-karga kendu beharko da. Kasu honetan, terrenoak lagatzea ezinezkoa denez, zuzkidura-kargaren balorea kalkulatu da eta ordaindu egingo da.

Beraz, indarrean den ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, 53.2.c. artikulua arabera, hirigintza-eraikigarritasuna finkatzea egiturazko hirigintza-antolamenduaren eskuduntza da eta ondorioz, honen ezartzea, 58 eta 104.1 artikuluei jarraiki, plan-mota bera eta onarpen prozedura bera erabiliz egin beharra dago. Kasu honetan Plan Orokorren aldaketa puntualaren bitartez.

Aipatu, 104.c artikulua arabera, Aurrekariaren tramitazioa hautazkoa dela eta beraz ez dela nahita nahiez bete beharrekoa.

Hori horrela, ikusita Proiektuari buruz jaulkitako txosten juridikoa eta Hirigintza eta Azpiegiturak batzordeak erabakitako diktamena, Udaltzak, aho batez, Udaltzaldearen gehiengo absolutuaz,

ERABAKI DU

Lehena: Hasierako onespina ematea aipatutako Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren aldaketa puntualari, "28. Albiztur" Hirigintza esparruari dagokionari, hain zuzen ere.

Por lo tanto, el objeto de esta modificación puntual es ampliar la edificabilidad del ámbito. En concreto, se prevé una ampliación de 5.668 m² (como máximo). Para ello, se aumentará la ocupación en planta y la altura máxima en un %25 de la ocupación en planta.

En virtud de esta modificación, el suelo actualmente consolidado pasará a ser suelo urbano no consolidado, y, por lo tanto, habrá de eliminarse la carga dotacional. En este caso, ante la imposibilidad de cesión de terrenos, se ha procedido a calcular para su abono el valor de la carga dotacional.

Por lo tanto, en virtud de lo establecido en el artículo 53.2.c de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, la fijación de la edificabilidad urbanística corresponde a la ordenación urbanística estructural y, en consecuencia, de acuerdo a los artículos 58 y 104.1 de dicha ley, su implantación se deberá realizar mediante la misma clase de plan y observando el procedimiento seguido para la aprobación. En este caso, a través de la modificación puntual del Plan General.

De acuerdo al mencionado artículo 104.c, la tramitación del avance es optativa, y por lo tanto, no es de obligado cumplimiento.

Así pues, vistos el informe jurídico emitido al respecto y el dictamen de la Comisión de Urbanismo e Infraestructuras, el Pleno, por unanimidad, que supone la mayoría absoluta legal de los miembros que componen la corporación,

ACUERDA

Primero: Aprobar inicialmente la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana relativo al área "28. Albiztur".

Bigarrena: Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta egunkarietan argitaratuz. Plana hilabetez egongo da jendaurrean azken argitarapenetik kontatzen hasita.

Hirugarren: Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei hasierako onespeneren berri ematea, aldaketa ezagutu eta txotena egin dezaten.

Laugarren: Erabaki honen berri interesatuari eta Albizturgo Udalari ematea.

Segundo: Someter el expediente a información pública, por medio de su publicación en el B.O. de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en los diarios de mayor difusión por el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente de la última de las citadas publicaciones.

Tercero: Comunicar a las Administraciones Públicas con competencias sectoriales la aprobación inicial para su conocimiento e informe.

Cuarto: Dar cuenta de este acuerdo al interesado y al Ayuntamiento de Albiztur.

4. UEMAko ordezkariak izendatzea.

4. Nombramiento de representantes de UEMA.

Udalak, 2013ko urtarrilaren 29ko Osoko bilkuran, onartu zuen UEMAren kide izatea eta onartu zituen ere erakundearen estatutuak. Jarraian, izendatu ziren Tolosako ordezkariak UEMAKO Mankomunikatean.

Hori horrela, Udal Batzarreko ordezkari horien agintaldia amaitu zen 2015eko maiatzean, beharrezko izanik izendapen berriak egitea.

Gai honi buruz, Estatutuak diote:

“9. art.-

a. Aukeratuak izan diren kideen agintaldia eta hautatutako Udal Batzarrena berdina izango da. Zinegotzien nahitaezko edo borondatezko kargu uzteak berarekin ekarriko du UEMAko ordezkari zitea ere. Kasu horretan Udalak ordezkari berriak izendatuko ditu.”

Bestalde, aipatutako Estatutuen 8. artikulua dio: *“BATZAR NAGUSIAn mankomunitatea osatzen duten Udalen ordezkariak ondorengo mailaketari dagokiona izango dira:*

** 10.001tik gorako Udalak..... kideak, 5”*

Azken artikulua honetan xedatutakoaren arabera, Tolosako Udalari 5 ordezkari dagozkio Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean.

Hortaz, proposamena bozketara jarri ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik.-- Tolosako ordezkari UEMAko mankomunitatean honoko hauek izendatzea: Olatz Peon Ormazabal, Nuria Carbonell Miranda, Begoña Tolosa Mendia, Joseba Ormazabal Lopez eta Iñaki Irazabalbeitia Fernandez.

Bigarren.- Erabaki honen berri UEMAr (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) ematea.

5. Galderak eta eskaerak.

5. Ruegos y preguntas.

- ... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDUko zinegotzia: *“Ezpalako gazteak hemen izan ditugu. Udalbatza aurretik gai honetaz hitz egin dugu, baina argi dago bideratu egin beharra daukagula. Daukagula diot, zuek alkatetza daukazu elako, baina Udala guztiok osatzen dugu; tentsioak bideratu egin behar ditugu. Udalak baditu espazioak. Egoera adostu egin behar da, bestela egoera okertu egingo da. Zentzu horretan laguntzeko proposamena egiten dugu, eskua luzatzen dugu. Iruditzen zait, gazteak gauzak egiteko gogoak izanda eta lokalak edukita, bideratu egin behar dugula egoera hau. Esandakoa, bideratzeko prestutasun osoa gure aldetik.”*
- ... Alkatea: *“Egia esan, gazteak hemen izan duten portaerak, jokaerak, harritu egin nau. Tolosako Gazte Asanbladak bere proiektua garatzeko espazioa baten eskaera luzatua du Udaletxe honetan. Egindako bileretan eskaera guztiei era positiboan erantzun zaie. Egin ditugu bilerak beraiekin, azkeneko bilera aurreko ostiralean izan zen eta elkarlanean bidea jorratzeko asmoa azaldu zen. Beraz, han azaldu zen borondatea ikusita, gaur izandako portaera ez da ondo ulertzen. Azken bilera horretan erabaki batzuk hartu ziren. Beraiek konprometitu ziren proiektu bat aurkeztea Udaletxean, bere ideia, eta gu, gure aldetik, Iruñako esperientzia aurkeztu zuten beste bilera batean, erabaki genuen Iruñako Udaletxearekin harremanetan jartzea hango esperientziak hartu eta ezagutuzeko, eta hemen gazteekin partekatuzeko. Hori aurreko ostiralean izan zen. Beraz, adierazpen askatasuna herritar orok dauka, baina ez dut oso ondo ulertzen gaur Udalbatza honen hasieran izan duten jarrera. Era guztietara, egia da, gauzak hitz eginez konpontzen direla. Bide bat egin behar da eta horretarako erabateko borondatea dago eta bide horretan hasiak gaude”.*
- ... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDUko zinegotzia: *“Aurreko egunetan Euskal herriko egunkari batek elizaren inmatrikulazioaren inguruko berri bat eman du. Hau da, elizak, Tolosan bertan, 80. hamarkadan bere izenean jarri zituen herri ondasun batzuen inguruko informazioa. Horren inguruan kezka agertzen dugu eta, zentzu horretan, eskatu nahi genuke lan talde bat eratzea, aztertzeke egia ote den bertan ematen den informazioa, eta, horrela bada, ze irtenbide eman diezaiokegun herriko eta herritarren lanaz eta diruaz altxatu diren ondasun guztiak herrira itzultzeko. Eta herria diodanean, guztiona den Udalaren esku gelditzearena nahi da. Beraz, lantalde bat eratzea eskatzen dugu, eta zentzu horretan argitu ditzagun bertan agertzen ziren berriak; egia bada, nola gureganatu ditzagun eta nola aurre egin lapurreta horiei”.*
- ... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNVko zinegotzia: *“Aurre-bileran esan dugun bezala, gaia aztertuko dugu; ez gaude itxita lantalde bat ez egitera. Ez dago horretarako inolako eragozpenik lantalde bat egiteko, informazio jaso eta, eskura dugunean informazioa, bilera bat egingo dugu dena argitzeko, eta horren baitan, beharrezkoa bada, lan talde bat osatuko dugu.”*

Besterik gabe, gaueko 20:25ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

Sin más asuntos que tratar, siendo las 20:25 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA